Zutaz ez dakigu ia ezer. Nor zara? Emakumezkoa? Gizonezkoa? Bizitzak irribarre egiten dizu ala gogor jotzen zaitu? Sinestuna al zara? Zer sinisten duzu eta zer zalantza dituzu? Pertsona alai, itxia, jostalaria al zara? Ikastetxeren batean ari al zara lanean? ALBOANen edo Ellakuria Zentroan? Deustuko Unibertsitatean? Parrokiaren batean? Gogoko al duzu daramazun bizia? Nola bizi dituzu zure zauriak? Eta pertsona bedeinkatuaren izaera? Zure historiaz ez dakigu ezer, kapitulu asko dituzun idatzita ala oraindik dena daukazun eraikitzeko. Ez dugu ezagutzen zure aurpegia, ezta zure izena ere, non bizi zaren eta zer maite duzun, zure bakardadea eta zure jaiak, zure porrotak edo zure helmugak.

Ez dakigu, ezta topo nola egin dugun ere. Nola iritsi zaizu dokumentu hau? Norbaitek oparitu al dizu? Horrek ez dio axola. Ez dio askorik axola, ezta ere, gutaz datu gehiago emateak. Zer axola dio! Azken batean datuek asko esaten digute zuri eragiten dizuten kezka edo itxaropenez, egin dituzun urratsez, ala utzi dizkizuten orbainez.

Baina hemen gaude. Badaramagu elkarrekin minutu bat gutxienez. Bikote berezia osatzen dugu. Zu irakurle eta gu kontatzaile. Agian, adinak, pentsae-

rak, ikasi ditugun ikasgaiek... elkarrengandik bereizten gaituzte, edo elkartzen. Baina elkarrengandik nabarmentzen eta pertsona berezi egiten gaituen ororen gaintetik, asko da partekatzen duguna ere. Gure izatearen sakonean, irrikak, ametsak, nahiak, bilaketak eta zalantzak partekatzen ditugu. Gure malko eta irrien zatia partekatzen dugu. Gizaki ororen baitan dagoen maitasunaren egarri sakonean egiten dugu topo. Topo egiten dugu, halaber, harrera egiteko, epaitu gabe besarkatzeko, gure hauskortasuna ulertzeko eta gure sendotasuna sumatzeko premian; benetan bizitzeko kezkan eta topo egitearen eta harreman sakonaren irrika agortezinean.

Hauek guztiek dute zer ikusia «espiritualtasunarekin». Dokumentu honek, Jesusen Lagundiaren erakunde ezberdinetan, igaziotar espiritualtasuna ezagutzera ematen, biziberritzen edo bultzatzen lagundu nahi du. Gure lantokietan espiritualtasun hau elikatzeko, berorietan lanean diharduten pertsonen konpromisoa eta parte-hartzea behar dira. Horregatik, eskuartean duzun testu hau, zeuri egiten zaizun gonbita ere bada. Horrekin, nahi baduzu, zeure aukera pertsonal eta profesionalen inguruan gogoeta ere egin dezakezu.

Dokumentua bost kapitulutan banatzen da, gure espiritualtasunarekin zerikusia duten bost giltzarri dira. Kapitulu bakoitzean jarrera pare bat eta zenbait galdera eskaintzen dira, gogoetarako bide emanez, horrela, gure bizitza eta gure erakundeak ignaziotarrago izan daitezten. Kapitulu bakoitzak, amaieran, ebanjelioko hiru aipu izango ditu, otoitzean eta ignaziotar giltzarri horietan sakontzen lagun dezaten.

Gonbita egiten dizugu, diszernimendu otoizlari jarreran irakur dezazun kapitulu bakoitza, hau da, kapitulu bakoitzaren ondoren lau galdera egin ditzazula: Zer sentitu dut? Zerk eragin dit, argitasuna, bakea, alaitasuna? Zerk eragin dit kezka edo egonezina? Zer ekintza zehatz hartu nahi nituzke? Hartu denbora galdera hauei erantzuteko. Funtsezkoa da hori, orrialde hauei probetxu gehiago ateratzeko.

Non ari zara irakurtzen? Zeure bulegoan al zaude? Autobusean? Zeure etxeko besaulkian? Eskerrik asko denbora hau gurekin partekatu nahi izateagatik.

1. Kapituluua

Zergatik espiritualtasuna gaur?

Zentzurik ba al du, gaur egun espiritualtasunaz hitz egiteak? El Corte Inglés edo FNACeko liburu-atalaren apaletan begiratzen baduzu, oso gauza ezberdinak ikusiko dituzu, Santa Teresa Jesusenaren Castillo Interior, yogako liburuak edo Rappel futurologoaren El Gran Libro de las Recetas de la Suerte. Nahaste-borraste honi gehitu behar zaio gainera, kristauen irudi kolektiboan bertan ere, «pertsonek espirituala», beatoa, pertsona santu-jalea, arraroa ez esatearren, dela pentsatzera jotzen da. Jesuitekin harremana duten erakundeetan, non lanean diharduten langileen parte esanguratsuak ez duen kristau sinismena partekatzen, espiritualtasunaz hitz egitea, ez al da bereizten gaituenaz, batzen gaituenaz baino gehiago hitz egitea? Ezetz uste dugu.

Espirituالتasunak bizitzarekin eta berori bizitzeko dugun erarekin du zer ikusia. Goizero lanera joateko jaikitzen garen gogoarekin, seme-alaben arazoei aurre egiteko erarekin, edo gure bosgarren etxebizitzako bizilagunarekin ditugun harremanekin. Gure erreakzioarekin du zer ikusia, ispilua-aren aurrean jartzerakoan aurpegiko ximurrek zahartzen ari garela esaten digutenean; Googlen bisitatzen ditugun orrialdeekin, gure aisialdiarekin, geure edo gure izaki maiteren baten gaixoardiari aurre egiteko dugun kemenarekin. Eta zer ikusia du, noski, pertsona sinestunok Jainkoa deitzen diogunarekin, eta gure bizia, besteentzat bizi nahi izateraino aldatzen duen esperientzia horrekin.

Espirituالتasuna «espiritutik» dator, eta haizea, arnasa esan nahi du jatorrian. Askatasuna, haize leuna, itxi edo kaiolatu ezin den zerbait da. Horregatik,

espiritualtasuna ez da erlijioen eta sinestunen ondare essklusiboa. Pertsona askok, agian zuk ere bai, erlijio handien tradizioetik urrunduak gaur egun, zenbait arrazoirengatik, ez diote uko egiten beren espiritua lantzeari. Mundu anitz eta etengabe aldaketan dagoen honetan, ez da erraza definitzen zehatz zer den espiritualtasuna. Baina dirudenez, bide ezberdinek bat egiten dutela dirudi zenbait puntu nagusitan: giza sentiberatasun sakona lantzea, enpatia eta onena aukeratzeko gaitasuna gara dezan; pertsonen eta errealitatearen aurrean kokatzen gaituen ikuspegi egozentrikotik irtetea; bizitzeko era adiskidetu, errukior eta solidarioaren bilaketa.

Badago beste bat etortze bat ere: Zeinen zaila den gizatasun zentzu sako-
nez bizitzeko ahalegina! Besteak beste, denbora eskatzen duelako eta hori da, hain zuzen ere, falta duguna. Gure agendak beti daude beteta. Gure egunak beti daude beteta, egin behar ditugun gauzekin, amaitu beharreko proiektuekin, batzarrekin, dokumentuak, bidali beharreko emailak, irakurri beharreko liburuak, entregatu beharreko txostenak. Gure bizitzek gehiegi betetako maleten itxura daukate, kreailera lehertzeko zorian. Badago etengabeko sentipen bat, bukatu gabeko lanak dauzkagula, bete gabeko promesak, lortu ezinezko proposamenak. Beti dago gogoratu, egin edo esan behar genuen zerbait. Beti dago, aspaldian hitz egin ez dugun, idatzi ez diegun edo ikusi ez dugun jendea. Zereginez lepo gaude, baina, aldi berean, egin behar genuen guztia egin ez izanaren sentipena daukagu.

Zer eginik ez izatea da gainera harrigarria. Okupatuta egotea gure garaiaren ikur bilakatu da. Erlojuaren aurkako borroka etengabean bizi gara. Orain urte batzuk, arratsalde osoa har genezakeen lagunekin edo etxekoe-
kin Monopoly partidaren jolasteko. Monopolyren azken aldaeretan, partidek, hogeit hamar minutu baino gehiago ez irauteko eran daude antolatuta. Eta politikarie-
k eta kazetariek ideia burutsuak garatu behar dituzte, 59 segundotan!

Ez da bakarrik okupatuta egotea, kezkatuta egotea bilakatu da gure gizartearen ikur. Egunkariak, irratiek, telebistek... larrialdi giroan bizi arazten gaituzte etengabe. Zenbait berriemaileen ahots-tonua, gertakari tragikoekiko zaletasuna, eta giza miseriek orduro duten presentziak etengabeko zoritxar giroa elikatzen dute. Eta iragarki erauntsi baten bidez leku nabarmenetan erakutsiko digute, zer gerta dakigukeen Halakoren elkarrizketa ikusten ez badugu, begi-ertzeko zimurren aurkako krema hori erabiltzen ez badugu, edo bifidus eta soja duten jogurtak jaten ez baditugu. Bizitzak berez aski kezka eragingo ez balu bezala, kezka berriak sortzen ahalegintzen dira batzuek.

Kezkaz betetako gure bizitzaren sakonean, ordea zerbaite gehiago ezkutaten da. Gure buruak eta bihotzak gauza askorekin beteta dauden bitartean, eta geuk pertsonalki edo beste pertsona batzuek eskatzen diguten neurrian, erantzungo ote dugun geure buruari galdetzen diogun bitartean, osatu gabe gauden sentipen sakona dugu aldi berean. Gauza askorekin okupatuak eta kezkatuak gauden bitartean, gutxitan sentitzen gara guztiz pozik edo bakean geure buruarekin.

Bizitzaren erronka honetan, hain zuzen, berak duen onena eskaini nahi du Jesusen Lagundiak, bere espiritualtasuna. Ignaziotar espiritualtasuna ez da, lehendik ditugun zeregin ugari, «espiritualak» gehitzea. Ez da «... eta orain, egiten duzun guztiaren ondoren, dena utzi eta has zaitez otoitz egiten» ere. Ignaziotar espiritualtasunak bizitza era integratuan bizitzen lagundu nahi du. Integratzea, bizitzako proiektu pertsonalari ikusmuga garbia adieraztea da: egiten dugunari kalitate eta zentzu plus bat ematen dion ikusmuga, norbere buruarekin, besteekin eta kreaioarekin adiskidetuta bizitzen laguntzen duena.

Ignaziotar espiritualtasuna, bizitzari beste era batera begiratzeko bidea da, esker onez, begi errukitsu eta konprometuz, umore printzaz, zentzuz, besteengan oinarrituz, gure iraganaren irakurketa burutsua eginez, oraina tragikoki ez hartzeko eta etorkizunak inspiratuz bizitzeko. Horixe da azken batean Nazaretoko Jesusen begirada.

Jarrera pare bat...

Eskerrona. Ignaziotar espiritualtasunaren jarrera giltzarrietako bat eskerrona da. Ignaziok etengabe egiten digu «jasotako ondasun guztiengatik eskerrak emateko» gonbita. Alabaina, gure inguruko jarrerarik ohikoena eskura dugun guztia ongi irabazia dugula da. Eta gauzak guk uste bezala ateratzen ez direnean, bidegabekeria baten biktima garela sentitzen gara. Baina, zenbat jaso dugun geure historian zehar! Jar zaitez une batez pentsatzen: zer egin duzu zarena bezalakoa izateko? Nondik datoz bizi zaren bezala bizitzeko erabili dituzun talentuak? Zergatik jaio zara herrialde aberats eta seguru batean? Eta seme-alabarik baldin baduzu, zer egin duzu bizia ematea den misterio horretaz gozatzeko? Gure bizitza, sakonean, etengabe-ko oparia da.

Egunaren amaieran, eguna nola joan den ikusteko, une batez pentsatzen jartzen bazara, ikusten joango zara zenbat opari jaso dituzun: agurrak, irribarreak, topaketak, besarkadak, deiak, otorduak, ibiltze-ko, arnasteko aukera... Horixe da «ignaziotar azterketa». Ignaziok gonbita egiten digu, bakoitzaren bizitzan zehar ikusteko, zer dagoen mirarizko eta festa giroko, gure egunak ematen dituen bedeinkapen txikiez gozatzeko, hala behar dutela, eta zalantzan jarri ezinezko eskubidea dugula pentsatu beharrean.

Laguntzea. Hau da beste jarrera ignaziotar bat. «Arimei laguntzea» da Ignazio eta Jesusen Lagundia mugiarazten dituen, «besteei laguntzea» esango genuke gaur egun. Ignazioentzat «laguntzearen» ikusmuga integrazio giltzarri bihurtzen da bizitzan. Noel Crawford dramaturgo ingeles ospetsuak, behin batez, aspaldian ikusten ez zuen lagun batekin topo egin zuen, eta esan zion: «ez daukagu behar beste denbora bion gauzez hitz egiteko, hitz egin dezagun beraz nire gauzez». «Laguntzeko» ikuspegiaren arabera bizi denak «besteari» ematen dio protagonismoa, bere «nian» zentratu beharrean. Laguntzeak esan nahi du, gure zentzumenak irekita behar ditugula ingurukoen premiak aurkitzeko, eta errespetu sakona eskatzen du gizakiarekiko eta honen erabakitzeko askatasunaren aurrean.

Bizitzak, geure inguruan bizitza-sarea txirikordatu eta eraikitzen joatea eskatzen du. Historiak, proiektuak, bidearen zati bat, partekatzen ikastea esan nahi du. Besteen irrikak eta ametsak ulertzen ikastea, aniztasuna eta geure artean komunikatzeko aukera aurkitzea esan nahi du. Neurri batean, bakarrik ez gaudela jabetzea esan nahi du. Besteen bizitzetan parte garela, besteen historietan arrastoak uzten ditugula, gurean besteen historiek uzten dituzten eta aukera berrietara irekitzen gaituzten bezalaxe.

Zenbait galdera gogoetarako...

Barrutik haztea bilatuz.

Zure lantokian ba al dago barrutik hazten joateko gunerik? Sustatzen al dira hazte hori ahalbidetzen duten estilo eta erritmoak? Banakako laguntza ematerik eskaintzen al da? Erakundean ba al dago beste

espiritualtasunak bizi dituzten pertsonen adierazpideak onartzeko girorik? Otoitz diszernimenduaren metodoa erabiltzen al da? Erakundearen misioan azaltzen al da zein espiritualtasunez elikatzen den erakundea bera? Barne hazkundearekin lotura duen ezer neurtzen al dugu nolabait, arlo honetan?

Eskerronez eta eskuzabaltasunetik.

Eskerroneko sentitzen al naiz daukadan bizitzarekin eta lanarekin? Lantokian eskerroneko giroa bizi al da? Espiritu eraikitzailea ala kexuzkoa sumatzen da? Pertsona eskuzabala al naiz nire denborarekin? Erakundean harremana dudan pertsonekin nire talentu guztiak jartzen al ditut zerbitzuan?

Jesusen bizitzatik...

☞ Lk 10, 38-42:

«Marta, Marta, estu eta larri zabilta zu gauza askorekin; eta bakarra izan beharrezkoa».

☞ Mt 6, 25-34:

«Ez zaitezte, bada, kezkatu biharko egunaz... aski du egun bakoitzak bere nekea».

☞ Mt 25, 14-30:

«Bost talentu hartu zituena, haiekin lanean hasi zen berehala ...».

2. Kapitulua

Ekintzan kontenplaziozko erakundeak

Harrigarria badirudi ere, «ekintzan kontenplaziozko» esamoldea, oso ignaziotarra berez, ez da san Ignaziok asmatua. Jeronimo Nadal lehen jesuitakoarena da, izan ere, «Jainkoa gauza, jarduera eta solasaldi guztietan sentitu eta kontenplatze» Ignazioren bizi jarrera adierazteko asmatu baitzuen. Eguneroko bizitza, egunerokotasunaren txoko ilunak, Jainko egilea-rekin topo egiteko leku bilakatzen baitira horrela.

Formula hau ez da, esan bezala, ekintzaren tartean kontenplazio «dosiak» sartzeaz ari: kontua ez da hori. Lana egin, jardun eta bizi kontenplatuz. Kokatzeko era partikularra da, barne-kalitatea eskatzen duena eta baita bizitzak ematen digun orekiko irismen eta aberastasun handiagoa ere.

Kontenplatuz bizitzea errealitatea eta pertsonak errespetatuz bizitzea da. Ez da gauzek eta pertsonen duten protagonismoa harrapatu eta ordainez geurea jartzea, ez da geure burua pantaila edo horma gisa jartzea, ekarpena ez den orok, haren kontra talka egin dezan; arretaz kokatzea, xehetasunetan erreparatzea, keinua baloratzea, presarik gabe... Kontenplatuz bizitzeak bizitza guztiz ezberdina eta berritua jartzen digu begien aurrean.

Gogojardunetan Ignaziok, munduari Jainkoaren begiez begiratzeko eskatzen digu. Begirada unibertsala da; oinazearekin eta sufrimendurekin sentikorra den begirada, eta horregatik, erruki eragilea; itxaropen seinaleak aurkitzeko gai den begirada, askotan, gure bizitzetan eta gure munduan,

distirarik gabe, baina aurkitzen direnak. «Ekintzan kontenplaziozko» izateak gauzen sakonari begiratzea eskatzen du, itxura hutsean edo azalean gelditu gabe. Bizitzari aurre egitea da, den bezala, bere arrakasta eta porrotekin.

Paris Hilton tankeran, beti festaz festa bizitzeko erarik ez dago. Bizitza baketsua, lasaia, guztiz egonkorra, igoera eta jaitsierarik gabea, zorion unerik eta negar unerik gabea, zauririk eta behaztoparik gabea, edo ez da egiazko bizitza, edo burbuila baten barruan eraikitakoa da. Egia esan behar bada, ziurgabetasunak, erronkak, gatazkek eta kontrasteak aurrez aurre izango ditugu. Borrokak asko dira. Garrantzia duena da, borrokatu behar dugunean, edo borrokaldietan zauritzen garenean, ez dezagula ihes egin edo etsita gelditu. Ignaziok badaki Jauna bidelagun dugula beti, onean eta txarrean, zera ukitzen ari garen egun horietan, eta ohetik jaiki behar ez genukeenetan. Kontenplatuz bizitzea da, jakitea, bizira bota gaituzten Jainkoaren eskuek, ez gaituztela inoiz bidean botata utziko.

Agian zeure buruari galdezka ari zara, nola bizi zaitezkeen «kontenplatuz» sinesmenaren kontu honek ezer askorik esaten ez badizu. Sakonean, transzenditzen, berehalakoa baino urrunago doan zerbait esanguratsua bilatzen eta aurkitzen laguntzea da gakoa. Zerbait esanguratsua izatea, egun bakoitzari heltzeko indarra ematen dizuna, eta bidea aldapatsu egiten denean motibazioa bilatzea. Zerbait, proiektu partekatua izan daitekeena, zure bizitzako izenen bat, norbaiten zauriren bat zeure bihurtzen zaizuna. Zeure etorkizuneko erronkak, eraiki asmo duzun familia edo harengatik borrokatu behar duzuna, bokazio gisa bizitako lana, bertan ahalmenak, talentuak, ametsak... garatzea amesten duzuna. Edo zerbait, aldi berean orokorra eta zehatza dena, esate baterako, zientzia eta bere galderak, justizia eta bere aurpegiak, jende askori lapurtu zaion duintasuna eta berriro jaki nahirik oihuka ari dena...

Ekintzan kontenplaziozko pertsona izatea, munduari era konprometituan eta maitasunez begiratzea da. Gure inguruan arnas eta itxaropen guneak eragitea da. Zu, gu, denok, behar dugu kondenatuko ez gaituen begirada, epaituko ez gaituen besarkada, babestuko gaituen sorbalda. Ignaziok, hau guztia, eguneroko bizitzaren eta lanbidearen errealitate profanoenaren erdian gertatzen dela sentitzen du, hezkuntza arloan, negozioetan, politikan edo gizarteko ekintzetan.

Jarrera pare bat ...

Ahuldadea onartu. Mundu honetan libra gaitzala Jainkoak izaki perfektuetatik, lortzen duten bakarra ingurukoen pazientzia zorroztea baita. Gure gizatasunaren zati da ahuldadea. Gehiago oraindik, gure zauri askotatik sendotasun ezberdina, gizatiarra-goa, lasaiagoa, apalagoa jaioko daiteke. Sarri askotan geure izaera hauskor, mugatu eta zaurigarriaren esperientziatik bakarrik izan gaitzke «besteari» ateak irekitzeko gai. Ustezko perfekzioan gelditzen bagara, erraz hasiko gara amore ez ematen, auzokoa, haren ohitura txar, arrarotasun eta ahuleziengatik epaitzeko eta kondentatzeko jarrerak izaten. Baina, bestearen pitzadurak, norbere errealtateetik ikusten direnean, era berean pitzatua eta hauskorra hau ere, askoz errazago gertatzen da bestea onartzea, bere abilezia eta akatsekin, bere argiune eta txoko ilunekin.

Aukerak irekitzen dituen begiradaz. Kontenplazioa norbere irizpide eta esperientziaren, azterketarako sakontasunaren eta askatasunaren iturria da. Ekintzan kontenplaziozko diren pertsonak, ez dute ontzat ematen besterik gabe, ezarritakoa, betikoa. Epai presatiak saihesten dituzte, irtenbideak bilatzen dituzte eta gai dira, irteerarik gabeak diruditen egoeretan, hobetzeko eta hazteko aukerak ikusteko. Kontenplazioak zorroztu egiten ditu gure zentzumenak, bizitzak eskaintzen dizkigun ñabardurak eta aukerak sumatzeko.

Zenbait galdera gogoetarako...

Begirada errukitsu eta konprometitua.

Munduko zein premiari erantzuten dio erakundearen misioak? Egin al da inguruaren diagnostikorik hori landu aurretik? Aldizka aztertzen al da berriro gaurkotasunari erantzuten dion ala ez ziurtatzeko? Misio honen ondorio al da erakundearen estrategia? Zein neurritan hartzen du parte misioak jende-talde behartsuenen bizi baldintzak hobetzen? Ikastetxean lan egiten duten pertsonak eskaintzen al zaie pobrezia eta bazterketa errealtateekin harremanak izateko aukerarik? Ba al dago horietan parte hartzeko gogorik? Bultzatzen al da lankidetzarik beste gizarte eta elizako erakundeekin?

Itxaropen eragilea.

Ba al dago lan giro eraikitzaile eta parte-hartzailerik? Irteerarik gabe-ko diruditen egoerei ematen al zaie irtenbide sortzailerik? Gizartera mezu baikor eta itxaropentsuak eramaten al dira? Nola bizitzen dira erakundeen ahuldadeak? Ba al dago erakundeen ahuldadeak parte-katzeko eta gizatasunean batera hazteko gunerik?

Jesusen bizitzatik ...

⌘ Mt 5, 1-12

«Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak; aseak izango baitira».

⌘ Lk 10, 25-37

«Handik zehar, bidez zihoan samariar bat, ordea, hurreratu egin zen eta, hala ikusita, erruki izan zuen».

⌘ Lk 8, 40-56

«Bazen han, hamabi urte haietan odoljario zegoen emakume bat, zituen ondasun guztiak horretan xahutu arren, inork sendatu ezin zuena; eta, atzetik hurbildurik...».

3. Kapitulua

Bizitza eta misioa partekatzen dituzten erakundeak

«Zuritu zure hortz-haginak ... zaintzea da normalena». «Bisita ezazu gure spa ... zuk balio duzu-eta». «Zatoz Dermo Clinicera... zuk merezi duzu-eta». Iragarrien zerrenda nahi beste luza daiteke: moldatu zure ipurmasailak, kendu zure mitxelinak liposukzio bidez, moldatu zure abdominalak, konpondu zure sudurra, kendu begi-poltsak... Zergatik ez, zeuk ordain badezakezu? Orain urte batzuk Queen taldeak kantatzen zuen: «Den-dena nahi dut, eta oraintxe bertan». «Nieren» gizarte honetan, batzuetan dramatikoki indibidualista den honetan, ez da erraza pluralean hitz egitea, pentsatzea eta sentitzea. Baina hori da Nazareteko Jesusen logika. Gure Aita pluralean egiten den otoitza da; zorientasunak kantu sakon eta ausartak dira, pluralean haiek ere; eta Jesusen misioa ere misio partekatua da. Era berean, Loiolako Ignaziok ere laster baztertu zituen bakarrik eta oinez joateko bere asmoak, beste batzuekin batera partekatutako misioan sartzeko.

Bizitza eta misioa partekatzeko gonbita hau Jesusen Lagundiaren erakunde ezberdinetan lan egiten duten pertsona guztiei egiten zaie. Planteamendu ezberdinetatik eta bizitzako ibilbide anitzetatik, giza talde batua osatzen dugu, baterako misioaren alde, eta eguneroko lanean senidetasunaren ikur izan behar dugu. Komunitate neurri hau, berez, ordezkio planteamendua da gure gizartean. Eta hemen dago beste kristau paradoxatoko bat: zenbat eta geuretik gehiago hustu, orduan eta gehiago betetzen gaitu. Ordainik espero izan gabe ematen dugun igurtzi bakoitzari; erori den lagunarenganako keinu aringarri bakoitzari; partekatzen dugun, ogi, bake, hitz, ... bakoitzari, batek, hala bilatu gabe, zentzu gehiago aurkitzen dio, Bizi gehiago aurkitzen du bere bizitzan, mahaikide gehiago bere mahai partekatuan eta izen gehiago bere bihotzean.

Jesuiten erakundeetako arduradunek, taldean, kidesan sentimenduak eraitzen eta kultura partekatua sortzen lagunduko duen gobernu mota sustatzen saiatu beharko dute. Horretarako, funtsezkoa da pertsonak zaintzea eta haien laguntza ematea, lanbide profesionalaren hasieran, hartarako prestatutzan eta lanaren sustapenean. Erakundeen komunitate neurri hau, egungo lidergoa eta kudeaketa ulertzeko erarekin sintonian dagoen osagaia da. Lidergoa diogunean, bere sustraian, taldeetan ilusioa sortzeko, hau bideratzeko eta bateratzeko gaitasun gisa ulertzen da, partekatutako proiektu liluragarrietan talde konpromisoak bilatzen dituen antolakuntza kultura bat eratuz.

Era berean, taldeko pertsona bakoitzak, jasotzen duen gonbita hau bere egiteko eta komunitatearen eraikuntzan parte hartzeko ardura du, bere talentuak eta ahalegina horretan jarritz. Arduradunek eta taldeek erakundearen funtsezko aukerak sustatzeko eginkizuna dute, misioa garatzen den tokiko baldintza historiko eta kulturalak aztertuz. Kristauok Jainkoaren Erreinua deitzen dugun lan hau, giza familia handiaren ametsa da, bidegabekeriarik eta bazterketarik gabe.

Komunitate apostolikoak dira misio partekatu hau ikusarazteko eta gauzatzeko bitarteko ezin hobeak. Beren xedea erakundearen nortasuna eta misioa berriro eta indartzea da, jesuita erakunde diren aldetik, berez diren erakunde motari dagozkion ezaugarrietan gorpuztuta. Nahiz eta, beren berezko lekua lantokian duten komunitateak izan, bizitza partekatzeko guneak izan behar dute. Horregatik haziko dira lorpenak eta porrotak (norbanakoenak eta taldekoak) partekatuz, sinismena ospatuz, erakundeko gainerako lantaldeari lagunduz eta elkarri lagunduz. Ez dira beren baitan itxitako komunitateak, era batera edo bestera lagundu nahi duten pertsona guztiei irekitakoak baizik. Une honetan oparitzen zaigun grazia da lankidetzak, jesuita gisa jokatzeko gure erarekin guztiz bat datorrena.

Jarrera pare bat...

Adiskidetasuna, zioen Pedro Casaldáliga, behartsuen gotzainak: «Bidearen amaieran galdetuko didate: Bizi izan al zara? Maitatu al duzu? Eta nik izenez betetako nire bihotza zabalduko dut». Izenekin, aurpegiarekin, tokiekin... ari gara txirikordatzen gure bizitza. Historiak, ametsak, gau ilunak, bide zatia... partekatzen ikasten joatea esan nahi du gure bizitzak. Misioa partekatzea, bizitzako zerbait garrantzitsua partekatzea

da. Adiskideek eta lankideek, hurbiltasun maila ezberdinekin, gure bizitzako ibilbidean lagun diezagukete. Eguneroko lanean hurbil ditugun pertsonak eutsi egiten digute kontrako haizeak jotzen gaituenean eta poztu egiten dira gu pozik gaudenean. Borrokatzeko zergatiak eta arrazoiak ematen dizkigute, haiek ongi ikusi nahi ditugunean, bizitzak irribarre egin diezaien eta duintasunez eta sakontasunez bizi daitezen nahi dugunean... eta batzuetan gure bizitza bereziki konprometitzen da horretan. Haiekin ikasiz, baita, mugak, osoa ez dena, historietan gertatzen diren porrot zatiak... onartzen ere. Harremanetan eta harremanetarako, komunikazioan eta komunikaziorako, topo eginez eta topo egiteko bizi gara.

Eskuragarritasuna. San Ignaziori galdetu zioten behin: «Pobrezia, garbitasuna eta obediencia botoak dituzten beste ordena erlijiosoak baldin badaude, zer da Jesusen Lagundiak duen berezitasuna?». Eta san Ignaziok erantzun zuen: «Obediencia da ezberdina». Obediencia edo eskuragarritasuna jesuita tradizioaren parte da. Kontua ez da ardurak dituzten pertsonak gauzak esatea eta gainerakoek txintik egin gabe betetzea. Hori itsutasuna da. Ignaziok esaten zuen: «Sukaldean sartzen zaretenean, denek egin dezatela sukaldariak esandakoa. Eta erizaindegian zaudetenean, egin erizainak esandakoa». Gure inguruan lan egiten duten pertsonak fidatzea da hori, izan hauek lankideak edo zuzendariak, haien eskura jartzen ikastea, gure konfiantza botoa ematea eta ez uste izatea dena dakigula. Barne jarrera landu behar da, Jau-naren jardun sortzailea pertsonengan ikusteko. Eskuragarritasunak ezan nahi du, beraz, pobrezia, soiltasuna, eskuzabaltasuna, apaltasuna eta erantzunkidetasuna.

Zenbait galdera gogoetarako...

Komunitate-antolaketaren kultura sustatuz.

Erakundeak, nola ezkontzen dira askatasunarenganako errespetua eta pertsona bakoitzaren autonomia, eta proiektu partekatu batean parte hartzea? Nire lana egin behar profesional huts gisa bizi al dut, ala nire «izaera soziala» garatzeko gune bezala?

Zer balio dauzka erakundeak formulatuta, kultura partekatua sustatzea eta kidetasun sentimenduak eragitea bilatzen dutenak? Nola gauzatzen

dira balio horiek: batzordeak, zehar-taldeak...? Pertsonak zereginuz edo lanpostuz, hala behar balitz, aldatzeko prest al daude? Erakundeko pertsonak eroso sentitzen al dira taldean lan eginez ala nahiago dute beren lanak bakarka egitea?

Zer bide daude parte-hartzeko? Egiten diren iradokizunen zer batuz besteko da ekintza zehatzetan gauzatzen dena?

Komunitate apostolikoak bultzatuz.

Zer neurritan dira erakundea eta komunitate apostolikoa jesuita eta laiko arteko baterako lanerako gune, bi aldeek ikasi eta lankidetzaz eta lotura era berriak sortzen dituenak?

Erakundearen bizitzan ba al dago partekatze eta ospatzeko lekuerik, gunerik, «besterekin izateak, enpatiak, adiskidetasunak, elkarrekin atsedean hartzeak eta elkarrekin gozatzeko lehentasuna dutenak? Praktikan jartzen al da «baterako otoitz-diszernimendua» eta bilatzen al dira lantresna hau egoera jakin bakoitzari egokitzeko moduak? Komunitate apostolikoak ba al du bere agendarik?

Zenbateraino integratzen dira pertsona ez-kristauak dinamika hauetan? Baztertuak gelditzen al dira eta era horretan ez dira haien intuizioak, ahalmenak eta ikuspuntuak baliatzen? Ala, osteraz, haien parte-hartzeak komunitatearen sinestun neurria galarazten du, talde akonfesional bat gehiago bilakatuz?

Jesusen bizitzatik ...

☞ Mt 14, 13-21

«Emaiezue zuek jaten... Ez baitugu hemen, bost ogi eta bi arrain besterik...».

☞ Lk 5, 17-26

«...jendetzarengatik ez zuten aurkitzen perlesiaduna nondik sartu, eta etxe gainera igo, eta teilartetik eraitsi zuten».

☞ Lk 24, 13-35

«Elkarrekin hizketan eta eztabaidan ari zirelarik, Jesus berbera hurbildu zitzairen, eta haiekin batean zihoan».

4. Kapituluia

Munduarekin elkarrizketan dauden erakundeak

Loiolako Ignaziok sen handia izan zuen XVI. mendean: bizitza Espirituan bizitzeko ez zegoen monasterioan sartu beharrik, ezta mundutik aldendu beharrik ere. Hau noski, zerbait berritzailea izan zen, erlijiosoen bizitza, ordura arte, mundutik urruntzean fuga mundin baitzegoen oinarritua. Ignaziok hautsi egin nahi izan zuen hori. Aita Nadalek ederki azaltzen digu: «gure etxea mundua da».

Esaldi honek, mundua etxetzat hartzen duela esan nahi du, bertan, gainerako gizakiekin partekatuz bizitzera gonbidatuak gaudela. Ignazioren espiritualtasuna Groucho Marxen: «Gera ezazue mundua, jaistera noa-eta!» esaldi famatu haren guztiz bestelakoa da. Ignaziok ez du mundutik jaitsi nahi, bertan egon nahi du, eta hura besarkatu, Jainkoa bizi baita mundu horretan.

Ignaziok irudikatzen duen mundua, mundu anitza da, bertan bizi dira batera, bestelakoa eta desberdina. Zer esango dugu bada gaur egun! Geure etxeetan ere denetik pixka bat daukagu-eta: tatuajeak dituzten seme-alabak, pirzinak dituzten ilobak... Begira dezagun gure kaleetan eta hor ikusiko ditugu, txinatarren dendak, ile-apaindegi afrikarrak, harategi arabiarrrak, frutategi latinoamerikarrak... Ez daukagu oso urrun bidaiatu beharrik gauza exotikoak ikusteko. Gaur behin ere baino gehiago esan dezakegu mundua dela gure etxea. Nola kokatzen gara errealitate honen guztiaren aurrean? Bada dioenik, hasteko, bi aukera daudela aniztasunaren gertakaria bizitzeko. Lehenbizikoa «izotz-barra» erredua da, homogeneousutasuna bilatzen duena, dena berdina eta forma berekoa izan dadila. Bigarrena «paella» erredua da, osagai eta zapore ezberdinen nahasketak ematen dio platerari bere grazia.

Pertsona ezberdin batekin topo egiteak beti du bere arriskua, baina beti da aukera berrien iturri. Kultura artekotasuna, besteen giza, erlijio, kultura eta nortasun neurria aitortzeko proposamena eta bizi-apustua da, norberarentzat eta talde osoarentzat. Jarrerak, balioak, moduak, portaerak eta hurbiltzeko erak eskatzen ditu prozesuak, irekitasun, elkarrizketa eta konfiantzaz margotuak, parte diren guztien aldetik. Bidea ez da erraza, eta ez litzateke zuzena ere, honek guztiak berekin duen konfiantza falta eta galera sentimendua ezkutatzea. Baina ahaleginak benetan merezi du. Topaketa honek geure nortasuna aberastuko du eta batzen gaituena sendotuko du.

«Bestearekiko» harremana, aukera bakarra da geure buruarekin topo egiteko. Gero eta kidesun pertsonal zabalagora gaude deituak, mundu osoaren zati sentitzeraino. Kultura artekotasunaren kudeaketa, bizi garen immigrazioaren gizarte berri honen erronka nagusienetakoa da. Gune geografiko eta politiko berean kultur nortasun bilketa hain zabalak gertatzeak, erantzun burutsuak eskatzen ditu, aniztasuna aberastasunatzat ulertua izan dadin eta ez trabatatzat, gune sozial berean bizi diren gizon-emakumeen bizitzaren martxa normala oztopatzen duena.

Geure arteko ezberdintasunak aitortzeak aberastu egiten gaitu eta partekatzeak indartu. Baina garrantzitsua ez da kultura ezberdina errespetatzea eta onartzea bakarrik. Hori baino arrisku handiagoa eta eskuzabalagoa egin behar da: beste kultura, geurea eraikitzen laguntzen digun balioa dela integratu eta aitortu. Begirada zabal eta unibertsalekoak izatera, eta geure bizitzaren sinfonian melodia ezberdinak integratzera deituak gaude, geure izatearen aberastasuna aurkitzen lagunduko digutenak. Ezinbestekoa da, kultura aniztasuna, nagusitasun ideiatik aukera eta erronka gisa kudeatzera igarotzea.

Kulturen arteko topaketak eragiten duen aberastasuna ez da folklorikoa, ikusmuga-aberastasunaren zentzua da, begiratzen ikastea eta bizitza beste kategoria batzuekin interpretatzea. Ez da aski, asmo onak eta bihotz ona izatea, baizik praktikak, jarrerak eta ukipen-esperientziak behar dira. Hauek lagun dezakete aniztasuna kudeatzen, heldutasunetik eta gure egunerokoan daukagun izateko eta egiteko modu pertsonalen kontraste kritikotik.

Geure kultura ez urardotzea da kontua. Ez da geurea eta bestearena elkarrekin nahastu eta hirugarren produktu bat sortzea. Integratzea da kontua, bakoitzak bere izaera pertsonal eta jatorrizkoa galdu gabe. Mestizaiak, elkarrizketak edo aniztasun kulturalak erlatibismoan erortzeko arriskua dute, gau-

za denek pisu bera dutelakoan, eta ez da argi gelditzen zenbait funtsezko balioen defentsa. Balio horiek porrot egiten dutenean, taldeak etsi egiten du, eta galdu egiten ditu, bai bere nortasuna eta baita gizarteari eta munduari egin behar dizkion ekarpena ere. Kultura batetik eta bestetik zer onartu eta zer baztertu? Nola egokitu? Horretan datza diszernimenduaren ignaziotar jardunak.

Jarrera pare bat ...

Onespena. Besteen ona eta positiboa dena baloratzeko jarrera da, aurreiritzirik eta aldez aurreko kondenarik gabe. Migrazioaren mundua aurreiritziz beteta dago. Hemen doaz adibide batzuk: «immigranteak gure osasun sistema geldiarazten dute», «immigratioak delinkuentzia areagotzen du», «immigranteek lanpostuak kentzen dizkigute». Hori ez da egia. Errezelo eta bazterketa jarrera hauen aurrean, munduari berotasun pixka bat eta onespena ematea, eta hitz leungarriak esatea dagokigu. Hau guztia, noski, inozoak izan gabe eta buru argiz. Izango dira uneak balio demokratiko partekatuekin bat ez datozen jarrerak edo portaerak salatu beharko ditugunak.

Enpatia. Aurrean ditugun pertsonen lekuan jartzea da, haien ikuspuntua ulertzen saiatzea, eta haien bila irtetea. Topo egitea da, benetan, besteengana irekitzeko ditugun zailtasunak gainditzeko bide bakarra. Elkarrekin topo egiten ez badugu, dena da teoria hutsa. Ignaziotar espiritualtasuna, kreatura guztietan bizi eta lan egiten duen Jainkoan oinarritzen da. Kultura ezberdinak dohaina dira berez, besteak beste, norbanakoei beren espiritualtasuna adierazteko eta beren nortasun bakarra erakusteko aukera ematen dielako.

Zenbait galdera gogoetarako...

Mundura irekitako obrak, elkarriketan.

Obran lantzen al da ezberdinarenganako kultura? Ideiak edo sentimenduak adierazteko beldurra al dago? Taldeak irekita al daude gizarteak kultura, erlijio edo generoa bezalako gaietan dituen aniztasunera? Nola lantzen da ezberdinarekin aberasteko edo bestelakoa

toleratzeko gaitasuna? Elkarrizketarekin batera, azaltzen al dira Ebanjelioaren balioak izadiaren erabateko proposamen gisa? Lan egiten al da obrak Jesusen Lagundiaren misioa eta nortasuna argi isla ditzan? Zer pauso zehatz ematen dira norabide honetan?

Kultur errealitatea estimatzen duten obrak.

Gure gizartearen kultur errealitate ezberdinak aitortzen eta estimatzen al dira, euskarazko kulturaganako interes berezia izanez? Indartzen al da euskaraz eta euskal kulturaren inkulturatzea, toki bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuz? Beste gutxiengoekin sentikortasun berezirik ba al dago?

Jesusen bizitzatik ...

☞ Jn 4, 1-45

«Nola zuk, judutar izanik, eskatzen didazu edatekoa, emakume samariarra naizen honi?».

☞ Mt 15, 21-28

«Kanaandar emakume bat... deiadarka hasi zitzaien: Jauna...! Deabru gaizto-gaizto bat du nire alabak!».

☞ Mk 9, 38-41

«Maisu, zure izenean deabruak botatzen ikusi dugu, gurekin ez dabilen bat; eta guk galarazi egin nahi izan diogu, ez baitabil gurekin».

5. Kapitulua

Berradiskidetzearen alde lanean dihardu-

Institutuaren Formula, hau da, Jesusen Lagundiaren oinarritzko Arauak dio, jesuiten eginkizun nagusienetakoa «liskartuta daudenak adiskidetzea» dela. Lagundiaren sorreratik bertatik, milaka jesuita aritu izan dira jendea adiskidetzeko zereginetan. Jakina da Ignazio eta lehen lagun taldea, gai izan zirela liskartutako familiak, zatitutako herriak eta baita beren gotzainekin aurrez aurre zeuden apaizak adiskidetzeko ere. Jesusen Lagundiaren azken Kongregazio Orokorrak, 2008an ospatutakoak ere, jesuiten tradizio hau azpimarratzen du, zubiak eraikitzea, mugak gainditzea, ezinbestekoa dela, indarkeriak, borrokak eta zatiketak urrututa aurkitzen den gaur egungo munduarentzat.

Adiskidetzeak, besteak beste, hautsitako izakiak garela adierazten du. Zu ere, irakurtzen ari zaren hori, izaki hautsia zara. Eta gutako bakoitza, idazten dugunak ere, izaki hautsiak gara, hausturak pertsonalak eta barrukoak dira. Pertsona bakoitzak ditu bereak. Batzuetan haustura hori bat-batean iristen da, eta abisatu gabe, gaixotasun eran. Edo bakardadea deitzen da, edo bikote arazoak, edo seme-alabekin, edo lanean. Edo huts egin diguten amets horiek dira, edo ekonomia arazoak... Hausturak norberarenak dira, baina badira taldeak dituenak ere. Ez dago giza talde edo komunitaterik, nolabaiteko gatazkarik bizi ez duenik. Eta gure herriak ere, Euskal Herriak edo Euskadik, nahi dugun bezala deitu, baditu bereak. Gu ere, beste batzuek bezala herri hautsia gara. Terrorismoagatik, indarkeriagatik, zatiketagatik, torturagatik, sufrimenduagatik hautsita. Zenbat malko, zenbat oinaze ikusi eta bizi izan dugun! Gure errealitatearen zati da hori.

Gaur, atzo bezala, «liskartuta daudenak adiskidetzeara», bakearen alde lan egitea, funtsezko misio izaten jarraitzen du Lagundiaren edozein erakunderentzat. Ezertan lagun al diezaguke hainbeste zaurik? Ebanjelioak kontatzen digun Jesus eta Tomasen arteko gertakariak, adiskidetze hori amestera deitzen digu. Tomas ez zegoen Jesus lehen aldiz bere ikasleei agertu zitzaienean, eta hauek Jesus agertu zela kontatu arren, Tomasek ez zien sinetsi. Bere begiz ikusi eta bere eskuz ukitutakoan bakarrik sinetsiko zuen Tomasek. Handik zortzi egunera agertu zitzaien Jesus berriro, eta Tomas bertan zegoen. Eta Jesusek bere zauriak ukitzeko eskatu zion. Tomasek, ondoren, sinesmen aitortza hunkigarria egin zuen: «Ene Jauna eta ene Jaungoikoa!». Batzuetan gogorregi hartzen dugu Tomasen sinesgogorkeria hau, baina Jesusek, errieta egin orde, bere zauriak ukitzeko eskatu zion. Haien bidez gertatu zen adiskidetzearan miraria.

Gure lur honetan, Euskal Herrian edo Euskadin, nahi dugun bezala deitu, zauri hauek izan daitezke adiskidetze hori gertatzeko bide. Bikiimek beti eramango dute zauriaren sufrimendua, Jesusek bezala. Ezin dute, eta ez dute, zertan ezkutaturik, Alabaina, zauri horiek adiskidetzeko bide izan daitezke, eta bizia eman. Zauriek konprometitu egiten gaituzte, axolagabe ez gelditzera bultzatzen gaituzte. Zauriek beste pertsonen lekuan jartzera, haien mina pixka bat geure egitera deitzen digute. Zauriek, zaurgarritasunetik bizitzeko deia dira, geure hauskortasun pertsonalaz eta komunitate mailakoaz jabetzekoa. Eta itxaropen ikur ere badira, adiskidetzeara posible dela.

Izaki hautsiak gara. Egia da. Baina hori ez da gure bizitzan azkena edo behin betikoa. Gure izaera hautsiaren ezaugarria baino garrantzitsuagoa da izaki bedeinkatuak eta maitatuak garela. Horretan sinesten dugu kristauok. Bizitza honetara ekarri gaituzten Jainkoaren eskuek, gu mantentzen, guri eusten, eta guri itxaroten daudela bidearen amaieran. Adiskidetzearekin amets egin dezakegu, sinesten dugulako Jainkoaren espiritua guregan dagoela eta dena ez dagoela gure esku.

Jarrera pare bat ...

Barkamena. Barkatzea ez da ahaztea, eta ez du esan nahi errudinei justizia egin behar ez zaienik, hori zigorgabetasuna da. Barkamenak gogoratzea esan nahi du, baina beste era batera, iraganean

bahituta gelditu gabe. Indarkeriaren eta zapalkuntzaren oroitzapenen toxinak gaingitu ahal izatea, haien mende ez jartzea esan nahi du. Barkamenak eta adiskidetzeak aldatzen ditu gure bizitzak. Iraganaren erresuminetik eta samintasunetik ateratzen gaituzte, etorkizun berriari libreki aurre egitera bultzatuz. Barkamenak geure historiaren protagonista egiten gaitu eta gauzak aldatzeko boterea ematen digu. Barkamenak zerikusia du, iraganarekin, oraina nola bizi nahi dugun eta etorkizuna nola amesten dugun.

Elkarrizketa. Elkarrizketa da, zalantzarik gabe, ignaziotar espiritualtasuneko beste funtsezko jarrera bat. Ignazioentzat, konbertsio prozesuari lotuta dago elkarrizketa. Pertsonak eta komunitateak beren ikuspuntuekiko duten aski-usteari zirrikitu bat irekitzea esan nahi du, erdigune izatetik ateratzen hasteko bidea abiatzea. Elkarrizketak, hurbilketa esan nahi du, beste pertsonaren lekuan jartzea eta elkarren arteko mesfidantzak gaingitzea. Elkarrizketak eskatzen ditu, zuhurtzia, neurrian ibiltzea eta eskuzabaltasuna. Ignaziok Gogojardunetan dio: «Bakoitzak pentsatu behar du bere gogo, nahi eta ekoizititik ateratzen den adina aurreratuko dela espirituko gauza guztietan».

Sakoneko elkarrizketak eskatzen du, alde bakoitza, aniztasun marko batean, bere nortasunaren eta bere «kidetasun zentzuaren» jakitun dela. Gure testuinguru hurbilenean, gehiago edo gutxiago sentitu gaitetzke, euskaldun, espainiar, nafar... sentsibilitate eskusibo edo partekatuekin, baina elkarrekin derrigorrean bizi behar duten zenbait identitate baino zerbaite gehiago ere bagara. Gure komunitatea, zatiketa gaingituz eta elkarrizketa politiko, sozial eta kulturalaz aberastuz elkarrekin haztera deitua dago.

Zenbait galdera gogoetarako...

Adiskidetzea bilatzen duten erakundeak.

Gatazkak nola kudeatzen dira gure erakundeetan? «Liskartuta daudenak adiskidetzeko» zer praktika erabiltzen ditugu? Barkamenaren jarrera praktikatzeko eta bizitzeko al dugu? Biktimak nola hartzen ditugu eta nola laguntzen diegu? Zer ikasten dugu haien bidez? Zer ekintza zehatz egiten ditugu bake-hezkuntzaren alorrean? Zorrotzak al gara

terrorismoa kondenatzerakoan? Ausartak al gara salatzerakoan? Otoitz egiten al dugu bakearen alde?

Elkarrizketara irekitako erakundeak.

Nola kudeatzen da gure erakundeetan aniztasun politikoa? Bizi al dugu elkarrizketa girorik, deszentramendu girorik? Nola dago bermatuta gure obretan kidetasunen aniztasuna? Ba al dago ezberdintasuna partekatzeko gunerik?

Jesusen bizitzatik ...

∞ Jn 20, 19-29

«Bakea zuekin. Gero Tomasi: Ekarzu behatz hori, hona hemen nire eskuak...».

∞ Jn 8, 1-11

«Zuen artean bekaturik ez duenak bota diezaiola lehenengo harria».

∞ Lk 7, 36-50

«Honela diotsut, beraz: Asko maite izan du, eta barkatu ere bekaturik asko barkatzen zaio. Eta gutxi barkatzen zaionak, maitatu ere gutxi maitatzen du».

Amaiera

Aski dugu horrenbesteko hitz-jarioaz. Amaierako bi ohar baino ez. Lehenbizikoa: dokumentu honekin, egizu plastikozko zorroekin bezala. Mesedez, erabil ezazu berriro edo pasa iezaiozu beste bati, hark erabil dezan. Eta azkenik: **eskerrik asko honaino iristeagatik!**